

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 674/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 4koa. Honen bidez, kultur arloan, 2020. urteko ekitaldirako, zenbait beka eta laguntzen eskabideak ebaluatzeaz arduratuko den epaimahaiko kideak izendatzen dira. Hona hemen beka eta laguntza horiek: arte plastikoen eta ikusmen-arteen, arte dramatikoaren, musikaren eta dantzaren modalitateetarako bekak eta arte dramatikoaren, musikaren eta dantzaren modalitateetarako laguntzak.

Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 172/2019 Foru Dekretuaren bidez, kultur arloan, 2020. urteko ekitaldirako, oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, batetik, arte plastikoen eta ikusmen-arteen, arte dramatikoaren, musikaren, eta dantzaren modalitateetan bekak emateko, eta, bestetik, bakarrik arte dramatikoaren, musikaren, eta dantzaren, modalitateetan laguntzak emateko.

Aipatu den foru dekretuko 10. Oinarriak honako hau ezartzen du: Beka eta laguntzen eskaerak aztertu eta ebaluatzeko, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak Foru Agindu bidez izendatutako kideek osatutako epaimahai bat eratuko da. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.

Oinarri horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.i eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudia onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 foru dekretuak eta gainontzeko baterako xedapenek Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko titularrari ematen dizkioten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusateen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa

Epaimahaietako kideak izendatzea, batetik, 2020. urteko ekitaldirako kultur arloko beka eta laguntzetarako aurkezten diren eskabideak ebaluatzeko; bestetik, dagozkien proba praktikoa (ezarrita dagoen modalitateetan) ebaluatzeko zein bekak edo laguntzak emateko proposamenak egiteko. Honako hauek izango dira kide horiek:

Arte Plastikoak eta Ikusmen-arteen Epaimahaia

- Epaimahaiburua:
 - Andoni Iturbe Amorebieta (Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendari Nagusia).
- Ordezko epaimahaiburua:
 - Xabier Arauzo Uriarte (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia).
- Epaimahaiko kideak:
 - Edurne González Ibáñez (Artista eta Arte Ederretako irakaslea).
 - Peio Aguirre Azcárate (Komisario artistikoa).
 - Petra María Joos. Arte garaikidean aditua (Museo Guggenheim).



- Idazkaria titularra, botorik gabe:
 - Elena Alzaga Bilbatua (Kultur jarduerak zabaltzeko teknikaria).
- Ordezko idazkaria, botorik gabe:
 - Mikel Murillo Aurrekoetxea (Kultur proiektuen zuzendaritzako teknikaria).

Arte Dramatikoko Epaimahaia

- Epaimahaiburua:
 - Andoni Iturbe Amorebieta (Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendari Nagusia).
- Ordezko epaimahaiburua:
 - Xabier Arauzo Uriarte (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia).
- Epaimahaiko kideak:
 - Karmele Aranburu (Aktriza).
 - Ramón Barea Monge (Aktore eta zuzendaria).
 - Ana López Asensio (Barakaldo Antzokiko zuzendaria).
 - José Pedro Ibarrola Bellido (Artista eta eszenografian aditua).
- Idazkaria titularra, botorik gabe:
 - Elena Alzaga Bilbatua (Kultur jarduerak zabaltzeko teknikaria).
- Ordezko idazkaria, botorik gabe:
 - Mikel Murillo Aurrekoetxea (Kultur proiektuen zuzendaritzako teknikaria).

Musikako Epaimahaia

- Epaimahaiburua:
 - Andoni Iturbe Amorebieta (Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendari Nagusia).
- Ordezko epaimahaiburua:
 - Xabier Arauzo Uriarte (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia).
- Epaimahaiko kideak:
 - Luis Alberto Requejo Tapia (Klarinete jolea).
 - María Eugenia Luc (Konpositorea eta zuzendaria).
 - Rubén Fernández Aguirre (Pianoa eta ahotsa; pianista laguntzailea).
 - Giulia Brinkmeier (Soka (biolina)).
- Idazkaria titularra, botorik gabe:
 - Elena Alzaga Bilbatua (Kultur jarduerak zabaltzeko teknikaria).
- Ordezko idazkaria, botorik gabe:
 - Mikel Murillo Aurrekoetxea (Kultur proiektuen zuzendaritzako teknikaria).

Dantzako Epaimahaia

- Epaimahaiburua:
 - Andoni Iturbe Amorebieta (Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendari Nagusia).
- Ordezko epaimahaiburua:
 - Xabier Arauzo Uriarte (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia).
- Epaimahaiko kideak:
 - Jon Ugarriza Rodríguez (Koreografoa).
 - Leyre Ortueta (Dantza klasikoa).
 - Adriana Álvarez Rui-Wamba (Dantza garaikidea).
 - Daniel Doña (Garaikidea eta flamenkoa).



- Idazkaria titularra, botorik gabe:
 - Elena Alzaga Bilbatua (Kultur jarduerak zabaltzeko teknikaria).
- Ordezko idazkaria, botorik gabe:
 - Mikel Murillo Aurrekoetxea (Kultur proiektuen zuzendaritzako teknikaria).

Bigarrena

Foru Agindu hau interesdunei jakinaraztea, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekin-tzako Zerbitzuari ere, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Tercero

Agintzea Foru Agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra. — Indarrean jartzea

Honako Foru Agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biha-ramunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2020ko martxoaren 4an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA